

GABONETAKO



KANPAINA 2017-

ELKARTASUNEZ BIZITZEN IKASTEKO BIDEAK IKUSTEN. Ikastolatik...esperientziak



Amaia Aguirrezabal eta Ibai Larrabide

Hospital/Dispentsario bat eraikiz Jamaïque , Kintambo, Kinshasa

(Kongoko Errepublika Demokratikoa)

Nolako begiekin begiratzen dugun

Oso gaixorik zeuden bi gizonak erietxe bateko logela partekatzen zuten. Horietako bati, biriketan zituen arazoak arintzeko, arratsaldero ohean exertzen uzten zioten; logelako lehio bakarraren ondoan zegoen bere ohea. Beste gizonak berriz, denbora guztian ohean etzanda egon behar zuen. Bi gizonak ordu luzez hitzegiten zuten, euren emazte eta familien inguruan aritzen ziren, euren etxeez, lanez, oporrez...


Arratsaldero, ohea lehio ondoan zuenak, exeri zitekeen gizonak, handik ikusi ahal zen guztia deskribatzen pasatzen zuen denbora. Orduan, beste ohean zegoen gizona bizitzen hasten zen. Ordubeteko tarte txikiak ziren baina mundua haunditu eta kanpoko kolore eta bizitza harekin berpiztu egiten zen. Lehiotik leku eder bat ikus zitekeen, zisneak, pertsonak igerian eta haurrak haien paperezko untzi txikiekin jolasten. Maitemindutako gazteak ere bai, ortzadarreko kolore guztietako loreen artean besarkaturik. Zuhaitz haundi eta zaharrek apaintzen zuten paisaia.

Lehio ondoko gizonak hau guztia xehetasun guztiekin deskribatzen zuenez, beste oheko gizonak begiak itxi eta imaginatu zitzakeen hain miresgarriak ziren agertokiak. Udako arratsalde bero batean, handik pasatzen ari zen desfile bat deskribatu zion. Beste gizonak musika doinuak entzun ezin zituen arren, bere buruan irudikatu ahal zuen, lehio ondoko gizonak dena xehe-xehe deskribatzen ziolako. Egunak eta asteak igaro ziren.

Egun batean, goizeko txandako erizaina logelan sartu zen gaixo bakoitzaren bainurako ura ekartzen. Lehio ondoko gizonaren gorpua ikustean, lo zegoen bitartean hil zela ohartu zen. Oso triste jarri zen eta erietxeko lankideak deitu zituen handik gorpua atera zezaten. Handik gutxira, egoki ikusi zuenean, beste gizonak galdetu zuen ea lehio ondora eraman ahal zezaketen. Erizaina oso pozik jarri zen aldaketa eskatu zuelako; eta behin aldatuta, bakarrik utzi zuen.

Poliki-poliki eta minez baldin bazen ere, ohean eseri zen kanpoko munduaren aurreneko ikuspegia izateko asmoz, azkenean bere kabuz ikusteko aukera izango baitzuen. Lepoa luzatu zuen lehiotik begiratzeko. Burua poliki-poliki biratu eta aurrera begiratzekoan, horma txuri bat ikusi zuen. Harrituta gizonak galdetu zion erizainari ea zerk bultzatu zuen bere logelako kidea hain gauza xarmangarriak deskribatzera lehiotik beste aldera.

Gizon hura itxua zela erantzun zion erizainak, eta ezin zuela inolaz ere horma hura ikusi, eta behar bada, adore ematea zela bere helburua.



Beatriz Erquicia.

Debpukur, Sewli Telinipara, Barrackpore, Kolkata, West Bengal , India



Amaia Araico. Errefuxiatuak Atenasen.

Grezia

Con qué ojos miramos

Dos hombres, ambos seriamente enfermos, ocupaban la misma habitación de un hospital. A uno de ellos se le permitía sentarse en su cama durante una hora cada tarde para ayudar a drenar los fluidos de sus pulmones. Su cama estaba junto a la única ventana del cuarto. El otro hombre debía permanecer todo el tiempo en su cama tendido sobre su espalda. Los hombres hablaban durante horas y horas. Hablaban acerca de sus esposas y familias, de sus hogares, sus trabajos, de cuando habían estado de vacaciones...

Cada tarde, el de la cama cercana a la ventana, el que podía sentarse, se pasaba el tiempo describiéndole a su compañero de cuarto las cosas que podía ver desde allí. El hombre en la otra cama, comenzaba a vivir, en esos pequeños espacios de una hora, como si su mundo se agrandara y reviviera gracias a la actividad y el color del mundo exterior. Se divisaba desde la ventana un hermoso lago, cisnes, personas nadando y niños jugando con sus pequeños barcos de papel. Jóvenes enamorados caminaban abrazados entre flores de todos los colores del arco iris. Grandes y viejos árboles adornaban el paisaje.

Como el hombre de la ventana describía todo esto con todo lujo de detalles, el hombre de la otra cama podía cerrar sus ojos e imaginar tan idílicas escenas. Una cálida tarde de verano, el hombre de la ventana le describió un desfile que pasaba por ahí. A pesar de que el otro hombre no podía escuchar a la banda, él podía ver todo en su mente, pues el caballero de la ventana representaba todo con palabras muy descriptivas.

Pasaron días y semanas. Un día, la enfermera de mañana llegó a la habitación llevando agua para el baño de cada uno de ellos. Al descubrir el cuerpo del hombre de la ventana, observó que había muerto tranquilamente en la noche mientras dormía. Ella se entristeció mucho y llamó a los compañeros del hospital para sacar el cuerpo. Tan pronto como creyó conveniente, el otro hombre preguntó si podría ser trasladado cerca de la ventana. La enfermera estaba feliz de realizar el cambio. Cuando lo hubo cambiado, lo dejó sólo.

Lenta y dolorosamente, se incorporó apoyado en uno de sus codos para tener su primera visión del mundo exterior. Finalmente, tendría la dicha de verlo por sí mismo.

Se estiró para mirar por la ventana. Lentamente giró su cabeza y, al mirar, vio una pared blanca. El hombre preguntó a la enfermera qué pudo haber obligado a su compañero de habitación a describir tantas cosas maravillosas a través de la ventana.

La enfermera le contestó que aquel hombre era ciego y que de ningún modo podía ver esa pared, y que quizá solamente quería darle ánimos.



Amaia Araico. Ikasle ohia